UDAL UR BILTEGIAK — ULIA PASEALEKUA 15 ETA 17

A MAILA







Egileak eta data: Nemesio Barrio, 1869; Marcelo Sarasola, 1899

Deskribapena

30 urteko aldeaz eraiki zituzten bi biltegi hauek, Uliako ipar isurialdeko ura ekartzeko instalazioekin lotuta. Sorobordako tuneletik zuzenean elikatzen ziren. Txikiena, 1869koa, oinplano ia karratukoa da eta erabat lurperatuta dago. Sarbide zaila du, erregistro aho baten bitartez. 1899koa handiagoa da. Bi zatitan banatuta dago sarbidearen ardatzaren bidez. Sarbideak bi nabeen solairurainoko eskailerak ditu. Zati batean gailena da eta argiztapen baoak ditu perimetroaren goialdean. Bigarren biltegi horren hormek grabitate bidez funtzionatzen dute. Estalkia, berriz, kanoi beheratuko gangek osatzen dute, arku lerroetan eutsita, harrizko pilareen sare baten gainean. Bi biltegiak egoera onean daude, itxura batean.

Babes erregimena

1.- Babes erregimen orokorra.
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.

2.- Berariazko babes erregimena:
- Araubide berezia. Kultura eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2019ko uztailaren 17ko EHAAren arabera, erdi mailako babesa duen kultura ondasun deklaratzetik datorrena, multzo mounumental kategoriarekin.
- Eragindako ingurunea: xedapen horretan ezarritakoa.